

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Abenduak 24  
Asteazkena  
Alea: 972  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Iñaki Gabilondo, Juan Zelaia, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri eta Jose Maria Setien atzo Urrezko Dominaren ekitaldian.

## Jose Maria Setienek Gipuzkoako Urrezko Domina jaso du, Foru Aldundiaren errekonozimendu sari haundieta

■ Diputazioak Iñaki Gabilondo kazetaria eta Juan Zelaia enpresa gizona eta euskaltzaleari ere eman die Urrezko Domina ■ Juan Zelaiak lagundu zuen 'Tximist' espedizioa, Martin Zabaletak Everest igo zuenekoa.

ON Jose Maria Setien hernaniarrak Gipuzkoako Urrezko Domina jaso zuen atzo, Diputazioak ematen duen errekonozimendu saririk haundieta bizitza osoko lana eta ekimena eskertzeo. Setienekin batean Iñaki Gabilondo kazetariak eta Juan Zelaia enpresagizon eta euskaltzaleak ere jaso zuten atzo sari hori, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri Ahaldun Nagusiaaren esku.

"Jose Maria Setien jauna gaur egungo euskal pentsamenduaren klabeetako bat da" esan zuen Ahaldun Nagusiak atzoko ekitaldian. Nabarmendu zuen 28 urtez Donostiarra Obispo izandako hernaniarrak integracioaren alde egin duela lan, eta oso sakonera haundieta.

### JOSE MARIA SETIEN

"Neri Gipuzkoako herriak eman dit egin dudan lan pastoralak egitako aukera zoragarria eta sari hau Gipuzkoa osoarentzat da."

zainak dituen pentsamendua utzi diela guztiei, kriteria etiko arazo indibidual eta sozialei aurre egiteko".

### Gipuzkoako herriari

Setienek Gipuzkoako herriari eskaini zion saria, "beragatik izan ez balitz ez nintzelako gaur hemen egongo" esan zuen. Hernaniarraren esane-

tan, ia 30 urteko Gotzai lanak aukera eman dio Gipuzkoako herritarrek ezagutu eta jendearen izpiritua ulertzeko. Zintzo jokatze ezkerro, herriak nahi duenarekin koherente izaten saiatzen dakarrela esan zuen Setienek eta horretan saiatu dela bere bizitzan.

Jose Maria Setien 1928ko martxoaren 18an jaio zen, Hernanin. 1951n egin zuten apaiz Donostiarra Artzai Ona katedralean. Gero Erromano Teologia eta Zuzeigen kanonikoa ikasi zituen eta 1965-72 bitartean Salamancako Teologia Unibertsitateko Dekano eta Katedratiko izan zen. 1972an Donostiarra Gotzain izendatu zuten eta 28 urteetan hori eta beste kargu garrantzitsu bete ditu Elizan.

*La Iglesia y lo social, Un dialogo sobre etica, (Savater-Setien) De la Etica y el nacionalismo, A los 40 años de la Pacem in Terris, innovación y actualidad,* dira Jose Maria Setien lanen izenburuetako batzuk. Denera 10.000 erreflexio orritik gora idatzi ditu Jose Maria Setienek hainbat liburu eta artikuluetan. Autentik argitaratu ditu.

Setien, Gabilondo eta Zelaiari Urrezko Domina emateko ekitaldian politika, Eliza, gizarte eta kultur munduko ordezkariak izan ziren: Juan Mari Atutxa legebiltzarreko lehendakaria, Juan Mari Uriarte Gotzaina, Joxan Rekondo Hernaniko Alkatea eta Bixente Zaragüeta Akuariumeko lehendakaria, besteak beste. □

### Olentzero gaur Hernanin

OLENTZERO gaur etorriko da Hernanira eta ongietorria egingo diote hernaniarrak. TTarlak eta San Juan konpartsak Olentzeroarekin ibiliko dira kalean arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Kantuz Abesbatzak ere prestatu du bere ongietorria eta Hernani Musika Bandak Gabon Gaueko erronda egingo du iluntzeko 20:00ak aldeera. Dobera Euskara Elkarteko kideak baserriz baserri joango dira soinu eta bertsolarietan eta horretarako eguerdiko 15:00etan geratu dira arkupetan. Ikastolek eta Hernaniko auzo ezberdinak bizilagunek ere ongietorria egingo diote gaur Olentzerori. □

### Plenoa gaur Udaletxean

OHIZ Kanpoko plenoa izango da gaur eguerdiko 12:00etan Udaletxean. Bertan hitz egingo diren gaiak dira: 2002ko aurrekontuak, Kirol Patronatuaren aurrekontuko kredituen aldaketarako expedientea eta Udalak hartzea empleo eta prestakuntza arloko eskumenak.

Bestalde atzo Gobernu Batzordea izan zen eta bertan hitz egin ziren gaiak dira: zenbait eraikuntza eskaera, Gudarien Plazako edifizio bat botatzeko eskaera eta Celulosas Hernanik eraikin bat botatzeko egindako eskaera. □

### Presoen aldeko manifestazioa gaur

URTERO bezala gaur manifestazioa aterako da arratsaldeko 20:00etan Gudarien plazatik. Bestalde, egun osoan zehar arkumea errifatuko dute. Horrekin batera denda jarriko dute Deportibo taberna ondoan 11:30etatik 13:30etara eta 18:30etatik 20:30etara. Bestetik, Etxeratet arratsaldeko 17:00etaik 20:00etara mahai jarriko du Kixkal parean, materiala saltzeko, presoiei kartak idazteko, kuotakide egiteko, eta abar. □

BIHAR, EGUBERRI EGUNA,  
EZ DA KRONIKARIK IZANGO

Gudarien enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20.120 HERNANI

"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA

eta eraman aterki bat OPARI.  
Gabonetan ere, egin zure erosketak Hernanin.



Txapelketako irabazoleak eta Andoni Amonarraiz zinegotzia.

## Jubilatuaren Etxean trofeoak banatu zituzten Santo Tomasetan

KARTA txapelketa egin dute udazkenean Jubilatuaren Etxean eta mus, tute, eskoba eta puntuoa aritu dira. Santo Tomas jaian jaso zituzten sariak, eta musean irabazoleak izan dira Apezetxea eta Azpioleta, eta

txapeldunordeak Jose Luis eta Jesus. Tutean txapeldunak izan dira Pruden eta Barros eta bigarren Paulino eta Juanita izan dira. Eskoban aurreneko postuan geratu dira Bilbao eta Basilio eta hauen atzetik Cle-

mentino eta Pablo. Puntuan Bernardo eta Sebastian izan dira aurrena eta bigarren Clementinok eta Luisek egin dute. Sari banaketa ekitaldian Andoni Amonarraiz Ongintzako burua izan zen. □

## JASOTA BEZALA

### Olentzeroa dator

Jon Oñate Lizarralde erantzunetan

Zure gutunearan esandako guztiak banan-banan aztertzen hasi gabe, horietako batzuk egia ez direnak, egindako galderai erantzutera mugatuko gara.

Nolako udal banda dugun? Bada, profesionalak ez diren musikariez osatutako banda bat daukagu, nahi genukeena baino dedikazio gutxiago eskaintzen dioguna, izan ere lanak, familiak eta abarrek hainbat muga jartzen ditu. Musikarekiko ilusioa daukagu eta horri esker Hernaniko Musika Banda ez zen desagertu inguruko herrietako beste batzuk desagertu ziren moduan, eta horri esker jarraitzen dugu aurrera lanean. Ilusio horren ondorioz azken urte haue-

tan ahaleginak egiten ari gara gure erreperioria berritzeko, beste taldekin batean obra mistoak interpretatzeko, kontzerto pedagogikoak eta monografikoak egiteko etab.

Olentzeroa maite ote dugun? Hernaniko parte sentitzen gara eta gure herriko ospakizun askotan parte hartzen dugu gustora, hala nola San Joantean, Inauterietan eta Gabonetan. Horregatik, aspalditik egin izan dugun moduan, joan den igandearen Gabonetako kontzertua eman genuen urtero bezala, eta Erregeen Kabalgatan ere parte hartuko dugu. Eta horrez gain, orain dela 50 urtetik gora egin izan dugun moduan, aurten ere Gabon Gaueko erronda egingo dugu "Olentzero" kalejira interpreta-

tuz, guretzat horren ezaguna eta kuttuna den pertsonaiaren omenez.

Zure galderai erantzungo genielakoan, gure aldetik gaia honetan txutiko dugu eta, bukatzeko, Jon, jai onak igaro ditzazula, eta hernaniar guztiak ere bai. Bide batez, egun hauetan egitekoak diren ospakizun guztietan parte hartzeko gonbita egiten dizuegu guztiok, horien artean Gabon eguneko Olentzeroren ongi etorria, arratsaldeko 6etan, eta Hernaniko Musika Bandak "Olentzero" pieza joaz arratsaldeko 8etan duen Erronda.

**Manuel Sagarna Goiburu,  
zuzendaria.  
Hernani Musika Bandaren  
izenean.**

**Íñigo Royo Manterola**  
MASAJEA  
eta  
NATUROPATHIA  
*Eguberri jaietan,  
ondo pasa eta gutxi gasta!*  
Sta. Barbara 42 - 2.esk. - 943 33 28 94



  
TXIMELETA OPARIK  
Txirrita 10 - 943 55 23 95

**Allianz**  
ASEGURUA  
Agustín Ezponda  
AGENTZIA  
Telf.: 943 557 326  
656 735 109

**PINEDA**  
ELIKAGAI KALITATEKO EUSKAL LABELA  
KALITATEA  
Kardaberaz 32 - Tel 943 551643 - HERNANI  
GARANTIA ZIURTAKIRIA

**URRATS**  
*Eguberri jai zoriontsuak  
opa ditzuguengu*  
Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564 - HERNANI

**OIALUME BILTOKIA.**  
Igande eta jaiegunetan  
dantzaldia, 19,30etatik  
**Bihar, Disko festa:  
JOSEINA ETXEBERRIA**  
OIALUME BILTOKIA  
Oialume auzoa  
943 55 29 38

## HITZ BITAN

### ✓ BERTSOLATA

Bertso afaria Karobin etzi, Egaña eta Sorozabal bertsolariek. Abenduaren 26an, etzi, bertso afaria izango da Andoni Egaña eta Jokin Sorozabalekin. Afarirako txartelak eros daitezke, Aker, Kitto eta Aralar tabernetan.

### ✓ KIROLDEGIA

**Gabonetako ordutegia.** Kiroldegia itxita egongo da gaur, bihar, urtarriaren 1ean eta urtarriaren 6an. Abenduaren 27an piszina itxita egongo da goizez eta abenduaren 30ean piszina egun osoan egongo da itxita.

### ✓ OIALUME

**Diskofesta bihar Oialumen.** Joxeina Etxeberria izango da musika jartzen Gabon egunean Oialumen, 19:30etatik aurrera.

### ✓ ZINEA

**'Dias de Futbol' pelikula Biterin.** 'Dias de Futbol' pelikula proiektatuko dute Biterin aste-bukaera honetan. Abenduaren 27an, larunbatean, arratsaldeko 19:30etan eta 22:30etan izango dira emanaldiak. Igandean, arratsaldeko 19:30etan.

### ✓ ERREMONTEA

**Binakako txapelketako final erdiak gaur Galarreta frontoian.** Gaur jokatuko dira Galarretan binakako txapelketako final erdiak. Partiduak arratsaldeko 16:00etatik aurrera jokatuko dira: Iturrealde-Agirrezabala, Zalakain-Astibairen kontra; Zeberio II-Auzmendi, Agirresarobe Lizasoren kontra; Ezkurra-Urrutia, Altuna I-Iritarteren kontra; Sarasua-Gaztelu, Iribarren-Aizpuruaren kontra.

### ✓ WATERPOLOA

**Hernanik 2-5 irabazi zion Easori.** Hernani Bk 2 eta 5 irabazi zion CN Easori, Paco Yoldi igerilekuaren pasa den larunbatean. Jokoak izan ziren: 1-1, 0-2, 0-2 eta 1-0. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### + FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- Gauez: Gauez: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 ☎ 943 376076

## IRAGARKI MERKEAK

Pixua alokatzen da Sorgintxulo auzoan. Interesatuek deitu: 943 55 19 56 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu).



### Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

#### GAUR 16:00ETATIK AURERA

#### ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Iturrealde-Agirrezabala/Zalakain-Astibia
- 2.: Zeberio II-Auzmendi / Agirresarobe-Lizaso (Txapelk.).
3. partidua: Ezkurra-Urrutia / Altuna I - Iriarte
4. partidua: Sarasua-Gaztelu / Iribarren-Aizpuru II



## MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berri ditzu bere instalazioak eta inauguratza dijoa. 1500 m<sup>2</sup> baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealeku, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia